



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

José Iparraguirre Altamira  
María Cristina Apezteguia Saldias  
Teresa Miqueo Gamio  
Francisco Javier Alchu Iparraguirre  
Eusebio Elizalde Mariezcurrena  
Bautista Berregui Berruet

2010eko apirilaren 20an, arratsaldeko 6 t'erdietan, Iturengo Herriko Etxean, legez egindako deialdiaren ondorioz, Ohiko Biltzarrean elkartzen dira ondoan aipatzen diren zinegotziak. Alkatea den, José M<sup>a</sup> Gorosterrazu Elizalderen lehendakaritzapean, eta idazkaria den, Miguel José Belarra Tellechearen aitzinean, Gai Zerrendan sarturik dauden gai hauek aztertzen dira:

## **1. AURREKO BILKUREKO AKTAK IRAKURRI ETA ONETSI.**

Idazkariak azkeneko 2 bilkureko aktak irakurri ditu; ondoren, ahobatez onetsi eta izenpetu dituzte.

## **2. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.**

1. J.M.B.G.k lizentzia eskatu du Ansona etxeko leihoak aldatzeko. Eztabaidatu ondoren, ahobatez erabaki dute obra egiteko lizentzia ematea B. Jn.ari. Obra hasi baino lehen, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du. Obraren aurrekontua, 2.958,69 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 88,76 euro.

2. J.C.E.A.ek lizentzia eskatu du Pioinea etxeko leihoak eta ateak aldatzeko. Eztabaidatu ondoren, ahobatez erabaki dute obra egiteko lizentzia ematea E. Jn.ari. Obra hasi baino lehen, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du. Obraren aurrekontua, 13.929,48 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 417,88 euro.

3. I.E.H.k lizentzia eskatu du Errotalde parajeko nabea erreteiltzeko. Eztabaidatu ondoren, ahobatez erabaki dute obra egiteko lizentzia ematea E. Jn.ari. Obra hasi baino lehen, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du. Obraren aurrekontua, 6.645,00 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 199,35 euro.

4. P.M.Z.k lizentzia eskatu du Urtats etxearen ondoko lursaila txukuntzeko, euri-urak bideratzeko. Eztabaidatu ondoren, ahobatez erabaki dute obra egiteko lizentzia ematea M. Jn.ari. Obra hasi baino lehen, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du; zerga hori likidatu ahal izateko, aurrekontu idatzia aurkeztu beharko du Udaletxean.

Teresa Miqueok ez du erabaki honetan parte hartu.

5. T.A.S.ek lizentzia eskatu du Eguzkialdea etxearen ondoko garajeari teiltua aldatzeko, txapa gorria jarritz. Gaia eztabaidatu ondoren eta Eraikuntzako Ordenantza Orokorraren 52. artikulua araberan, metalezko teiltuak debekatuak daudela kontutan hartuz, ahobatez erabaki dute obra egiteko lizentzia ematea A. Jn.ari, teiltzako teiltua eraikitzeko baldintzapean. Obra hasi baino lehen, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

zerga ordaindu beharko du; zerga hori likidatu ahal izateko, aurrekontu idatzia aurkeztu beharko du Udaletxean.

Cristina Apezteguiak ez du erabaki honetan parte hartu.

6. A.M.A.A.k lizentzia eskatu du Mitxelteña baserrian dagoen behi-nabeari teilatua aldatzeko, teilaren itxura duen fibrozementua jarriz. Eraikuntzako Ordenantza Orokorraren 58. artikulua araberak, teila ez diren beste materialak erabiltzen ahal dira lurzoru urbanizazinean dauden nekazaritza eta abeltzaintzako instalakuntzetan, behar bezala justifikatzen baldin bada. Gaia eztabaidatu ondoren eta fibrozementua behinabean jartzeko material egokia dela kontsideratuz, ahobatez erabaki dute obra egiteko lizentzia ematea A. Jn.ari. Obra hasi baino lehen, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du. Obraren aurrekontua, 8.011,60 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 240,35 euro.

7. L.B.G.k lizentzia eskatu du Sagardigaraiko bordako teilatua konpontzeko. Ikusirik eskaeran ez duela garbi azaldu egin beharreko obra –harria edo teila erabili behar duen ez du jarri adibidez- ahobatez erabaki dute B. Jn.ari jakinaraztea egin nahi dituen obrak zehaztu behar dituela eta aurrekontu idatzia gehitu.

8. G.L.M.k lizentzia eskatu du 18 metro karratuko egurtegia eraikitzeko Epeintzarren etxearen ondoan. Eztabaidatu ondoren, ahobatez erabaki dute obra egiteko lizentzia ematea L. And.ari, eraikuntza bidetik gutxienez 3 metrotara kokatzeko baldintzapean. Obra hasi baino lehen, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du; zerga hori likidatu ahal izateko, aurrekontu idatzia aurkeztu beharko du Udaletxean.

Teresa Miqueok ez du erabaki honetan parte hartu.

9. J.M.A.P.ri lizentzia eman zitzaion 2007ko martxoaren 5ean, borda birmoldatzeko lurzoru urbanizazinean, 1. poligonoko 103. partzelan. Obra bukatzeko epearen luzapena eskatu du sustatzaileak. Gaia eztabaidatu ondoren, ahobatez erabaki dute obra bukatzeko epea beste urte baterako luzatzea A. Jn.ari.

Puntu honetan baimendu diren obrak egiterakoan, baldintza hauek bete behar dira:

- Planeamendurako Arau Subsidiarioak jartzen dutena bete.
- Hirugarrenen eskubideak errespetatu.
- Eskatu den obra baino gehiago ez egitea; espediente zigortzailea irekiko zaie, lizentziarik gabeko obrak egiten dituztenei eta emandako lizentzia betetzen ez dutenei.

**3. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA. 2. POLIGONOKO 81 ETA 82. PARTZELAK.**

Planeamenduko Arau Subsidiarioetako antolamenduko egiturazko determinazioen aldaketa aztertu dute, Iturengo 2. poligonoko 81 eta 82. partzelak hiri-



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

lurrean sartzeko, unitate berri bat sortuz. J.A.O. eta I.A.E. dira espedientearen sustatzaileak. Lurralde Antolamendu eta Hirigintzako 35/2002 Foru Legearen 79, 70 eta 71. artikuluekin bat etorritik, ahobatez, erabaki dute:

1. Planeamendurako Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onespina ematea.
2. Akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitatean editatzen diren egunkarietan argitaratzea, hilabete bateko epean jendaurrean egoteko.
3. Espedientea igortzea Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamendu Departamentura, hark txostena egin dezan Nafarroako Gobernuko departamentuen eskumenetako gaiez.

Aldaketari behin-behineko onespina emateko agiri bategina aurkeztu beharko dute.

#### **4. HERRILURRAK ALDI BATERAKO OKUPATZEKO ESPEDIENTEAK.**

1. Iturengo Udalak, 2009ko azaroaren 20an egin osoko bilkuran, legezko kideen gehiengo osoaren adostasunez, onespina eman zion 3. poligonoko herrilurretako 438. lurzati 75 metro karratu F.E.A. Jn.ak aldi baterako okupatzeko espedienteari, eta bai baldintza ekonomiko-administratiboaren pleguari eta espedientera bildu diren gainerako agiriei ere.

2010eko martxoaren 1eko datarekin argitaratu zen iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta ez da erreklamaziorik aurkeztu espedientea jendaurrean egon den epean.

Aipatutakoak ikusirik eta Nafarroako Toki Administrazioako 6/1990 Foru Legearen 172. artikulua eta Nafarroako Toki-Entitateen Ondasunak arautzen dituen Erregelamenduko 215. artikulua arautzen duena kontutan hartuz, ahobatez (arazko quoruma) erabaki dute:

1. Behin-behingo onestea 3. poligonoko herrilurretako 438. lurzati 75 metro karratu F.E.A. Jn.ak aldi baterako okupatzeko espedientea.
  2. Nafarroako Gobernura bidaltzea espedientea, beharrezkoa den onespina lortzeko.
2. Iturengo Udalak, 2009ko azaroaren 20an egin osoko bilkuran, legezko kideen gehiengo osoaren adostasunez, onespina eman zion 4. poligonoko herrilurretako 38. lurzati 62 metro karratu J.A.E.A. Jn.ak aldi baterako okupatzeko espedienteari, eta bai baldintza ekonomiko-administratiboaren pleguari eta espedientera bildu diren gainerako agiriei ere.



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

2010eko martxoaren 1eko datarekin argitaratu zen iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta ez da erreklamaziorik aurkeztu espedientea jendaurrean egon den epean.

Aipatutakoak ikusirik eta Nafarroako Toki Administrazioako 6/1990 Foru Legearen 172. artikulua eta Nafarroako Toki-Entitateen Ondasunak arautzen dituen Erregelamenduko 215. artikulua arautzen duena kontutan hartuz, ahobatez (arauzko quoruma) erabaki dute:

1. Behin-behingo onestea 4. poligonoko herrilurretako 38. lurzati 62 metro karratu J.A.E.A. Jn.ak aldi baterako okupatzeko espedientea.
2. Nafarroako Gobernura bidaltzea espedientea, beharrezkoa den onespena lortzeko.

## **5. ITURENGO ELEKTRA, SL.**

Iturengo udalerrian argi indarraren zerbitzua eman du Udalak urteetan, horretarako beharrezkoak diren zenbait ondare erabiliz: sare elektrikoak, transformazio zentroak, transformadoreak eta ekipo teknikoak, neurri ekipoak, lanabesak, etab.

Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legean lehia askearen printzipioa oinarri duen sistema elektrikoa eratu zuen, eta argi indarraren garraioa eta banaketa liberalizatu zuen, hirugarrenak sareetara iristea hedatuta, sareen jabetzak ez dakarrelako haren erabilpen eskusiboa. 54/1997 Legearen arrazioen azalpenean berariaz aipatzen da ondokoa: "*[...] zerbitzu publikoaren zentzua baztertu da, [...] haren ordez hornidura bermatuko baitzaie espresuki nazio lurraldearen barrenean zerbitzua eskatzen duten kontsumitzaile guztiei [...] objetibitate, gardentasuna eta lehia askearen oinarrien menpe funtzionatuko duen sistema elektrikoa eratu da; enpresa-ekimen askeak dagokion protagonismoa hartuko du bertan*".

Arautegi berri honek eskatzen du produkzio, garraio eta banaketa jarduerak banantzea, merkataritza-sozietateen bitartez. Honela, Miguel Angel Estebanez Lopezen aurrean –Lesakako notarioa- eratu zuen Iturengo Udalak "ITURENGO ELEKTRA, S.L." sozietate mugatua 2000ko martxoaren 31n, banaketa jarduera egokitzeko arautegi berriari, 2000ko urtarrilaren 21eko erabakia betez.

2000ko urtarrilaren 21eko erabakiak suposatu zuen faktuz atxikitzea argi indarraren zerbitzua emateko ondareek Iturengo Elektra, SLri. Ondareko ondasunak dira ondare hauek dagoeneko, Udalak jarraitu duen desfektazio prozeduraren ondorioz, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeko 103. artikulua xedatzen duenari jarraituz.

Argi-merkatuaren arautzean aldaketa gehiago eman dira eta gero eta zailago da Udalarentzat banaketa-jardueraren kudeaketak dakartzan betebeharrak behar bezala betetzea, egun dauden arau-eskakizunekin; bereziki aipatu behar dira erantzunkizun zibilaren arloan dauden arriskuak.



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

Aipatutakoak ikusirik eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeko 132 eta 138. artikuluek xedatzen dutenari jarraituz, ahobatez (7 boto, arauzko quoruma) erabaki dute:

1. Iturengo Elektra, S.L. udal enpresako tituluak eta udalerrian argi indarraren zerbitzua emateko beharrezko ondasunak besterengarriak deklaratzeari.

2. Aipatu diren ondasun eta tituluak besterentzea (saldu) enkante publikoaren bidez, J.A.L.V. injineru teknikoak egin duen balorazioa onetsiz. Enkante publikoa arautuko duen baldintza plegua onetsi dute eta hasierako prezioa 265.000,00 eurokoa izango da, aipatuko balorazioaren arabera.

3. Nafarroako Gobernuari eskatzea besterentzerako baimena, ondareen balioak gainditzen bai du Udal-aurrekontuko baliabide arrunten %25eko zenbatekoa.

4. Enkanterako iragarkiak argitaratzea aipatu den baimena lortu eta segidan.

## **6. ESKOLA.**

Iruñako 5. Jabetza Erregistroko ohar sinplea irakurri dute, non ageri den U.E. 1 unitateko borondatezko birzatiketa proiektua onetsi ondoren, eskola-erabilerarako 2.107 metro karratuko lursaila Iturengo Udalaren izenean inskribatua dagoela (3469. Liburukia, 34. Liburua, 100. Orria). Udalbatzak ahobatez erabaki du lursail hori Nafarroako Gobernuaren eskura jartzea, bertan eskola berria eraikitzeko.

## **7. 2009-2012 EPERAKO TOKI INBERTSIOEN PLANA.**

Espedientean dauden agiriak aztertu ondoren eta Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 73.2 c) eta 74. artikuluek xedatzen dutena kontutan hartuz, ahobatez erabaki dute:

1. "HODI NAGUSIA BERRITZEA BILTONTZITIK SARERAINO" izeneko obra kontratatzeko funtsezko baldintzak onestea, komunitate-publizitaterik gabeko prozedura negoziatua jarraituz.

2. Proposamenak aurkezteko gonbidapenak bidaltzea 3 enpresa hauei: Sasoi Eraikuntzak, SL, Construcciones Mariezcurrena, SL eta Grupo Azysari.

Libreki erabakitzeko zenbatekoarekin Udaletxeko eta Aurtizko frontoiko teilatuak konpontzea erabaki dute ahobatez.

## **8. OIHAN-APROBETXAMENDUKO ESKAERAK.**

Ahobatez erabaki dute Nafarroako Gobernuari bidaltzea oihan-aprobetxamenduko eskaera hauek, lurzatieen jabetza aurretik juzgatu gabe, beharrezkoa den baimena lortzeko:

- José M<sup>a</sup> Gorosterrazu Elizalde, "Errotalde" parajea; jabetza pribatua bezala agertzen da katastroan, 2. poligonoko 431. partzelan.



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

- José M<sup>a</sup> Gorosterrazu Elizaldek, "Zelaia" parajea; jabetza pribatua bezala agertzen da katastroan, 1go poligonoko 146. partzelan.

José M<sup>a</sup> Gorosterrazuk ez du erabaki honetan parte hartu.

Ahobatez erabaki dute aurrerantzean, aurkezten diren oihan-aprobetxamenduko eskaerak zuzenean bidaltzea Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuratik pasa gabe.

**9. 2010EKO AURREKONTUA.**

2010eko aurrekontua aztertu ondoren, aho-batez, erabaki dute:

1. Hasierako onespena ematea 2010eko aurrekontuari.
2. Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean.

Aurrekontuaren laburpena aipatzen da jarraian:

DIRUSARRERAK:		EUROAK
1. Kapitularia.	Zuzeneko zergak:	73.105,00
2. Kapitularia.	Zeharkako zergak:	15.111,96
3. Kapitularia.	Tasak eta bestelako dirusarrerak:	20.480,00
4. Kapitularia.	Transferentzia arruntak:	151.975,73
5. Kapitularia.	Ondareko dirusarrerak:	14.730,07
6. Kapitularia.	Inbertsioen besterentzea:	42.952,64
7. Kapitularia.	Kapital transferentziak:	220.748,21
	<b>DIRUSARRERAK GUZTIRA:</b>	<b>539.103,61</b>
GASTUAK:		EUROAK
1. Kapitularia.	Langileen lansariak:	42.127,60
2. Kapitularia.	Ondasun eta zerbitzuen gastuak:	92.490,00
3. Kapitularia.	Finantza-gastuak:	11.820,00
4. Kapitularia.	Transferentzia arruntak:	119.120,00
6. Kapitularia.	Inbertsio errealak:	242.346,01
7. Kapitularia.	Kapital transferentziak:	8.800,00
9. Kapitularia.	Finantza-pasiboak:	22.400,00
	<b>GASTUAK GUZTIRA:</b>	<b>539.103,61</b>



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

Gero, 2010eko plantilla organikoa aztertu ondoren, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 236 eta 271. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, aho-batez, erabaki dute:

1. Hasierako onespina ematea 2010eko plantilla organikoari.
2. Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean.

Hau da plantillaren edukia:

**Funtzionarioak**

1. Idazkaria. A maila. Oposizio-lehiaketa bidez betea. Zubieta eta Iturengo Udalen artean erdi bana. Lanpostuko osagarriak: % 24,88, % 30. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa, 3. jakite maila (203/2001 Foru Dekretua), Hizkuntz eskola ofizial batek emandako gaitasun agiria edo ofizialki balio berekotzat jotako beste titulazio bat. Egoera: hutsik.

2. Zerbitzu anitzetako langilea. D maila. Oposizio-lehiaketa bidez betea. Zubieta eta Iturengo Udalen artean erdi bana. Lanpostuko osagarriak: % 12 % 19,35. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa, 1. jakite maila (203/2001 Foru Dekretua), lau kurtso gainditurik izatea hizkuntz eskola ofizial batean, edo bederatzi urrats gainditurik Nafarroako Gobernuak antolatutako kurtsoetan. Egoera: jardunean.

**Lan-kontratudun finkoak**

1. Administrari laguntzailea. D maila. Oposizio-lehiaketa bidez betea. Zubieta eta Iturengo Udalen artean erdi bana. Lanpostuko osagarriak: % 12, % 24,35. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa, 3. jakite maila (203/2001 Foru Dekretua), Hizkuntz eskola ofizial batek emandako gaitasun agiria edo ofizialki balio berekotzat jotako beste titulazio bat. Egoera: hutsik.

**Langileen izenen zerrenda**

Idazkaria: hutsik.

Zerbitzu anitzetako langilea: O.A.S. Maila: D. Lanpostuko osagarriak: % 12 % 19,35. Antzinasuna: 2004/06/26.

Administrari laguntzailea: hutsik.

**10. ALKATE JN.AREN EBAZPENAK.**

Alkateak emandako ebazpen hauek berretsi dituzte: 2010eko urtarrilaren 29koa, langile langabetuak kontratatze lanak onetsi dituena; 2010eko martxoaren 15koa, Nafarroako Ogasunak bidalitako balioak katastroan sartzeari buruz; 2010eko apirilaren 6koa, oilaskoen esplotazioa handitzeko espedientea izen-aldatzeko baimena eman duena.

**11. ZENBAIT ESKAERA.**



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

1. A.U.E.k, Malerrekako Gazte Asanbladaren izenean, baimena eskatu du “Malerrekako gazte eguna” ospatzeko Iturenen, maiatzaren 22an. Egun horretako ekintzak antolatzeko zera eskatu du: Udaletxeko ganbara eta sukaldea -hitzaldia eta bazkaria egiteko-, musikako kioskoa, txozna jartzeko eta kapilla erabiltzeko baimena. Gaia eztabaidatu ondoren, ahobatez erabaki dute Malerrekako Gazte Asanbladari baimena ematea, “Malerrekako gazte eguna” ospatzeko Iturenen, maiatzaren 22an, baldintza hauekin:

- Egitarau zehaztua aurkeztu behar du Udaletxean.
- Udalak ez dio baimenik ematen Udaletxeko ganbara eta sukaldea erabiltzeko. Herriko Ostatuan dago toki aproposa bazkaria egiteko, eta horrela herriko negozioei ematen zaie egun horretan etekina ateratzeko aukera.
- Kapilla erabili ahal du, baina eduki kulturala duten ekintzatarako bakarrik; ez da eduki politikoa duten ekintzarik onartuko. José Iparraguirrek puntu honekin desadostasuna agertu du; bere ustez ez da zilegi kapillaren erabilpena baimentzea egun horretarako, urtean zehar herritarrei erabilpena ukatzen zaienean, atea giltzatu egoten delako.
- Txozna plazan jartzeko baimena ematen da.
- Malerrekako Gazte Asanbladako ordezkarien gain, eta zuzenean eskaera bideratu duenaren gain, A.U.E., geratuko da erantzunkizun osoa egun horretako antolakuntza, ondorio eta gertakarietan –baldin badira-.
- Antolatzen diren ekintzak (musika barne) goizaldeko 3tarako bukatuak egon beharko dute.
- Antolatzailerik arduratuko dira plazaren garbiketaz. Honek garbia egon beharko du hurrengo egunean (igandea) egurdiko 12tan.

2. Aurtizko Ostatuko maizterrak, A.M.E.A., baimena eskatu du Trinitate egunaren inguruko jaia ospatzeko Aurtizko auzoan, maiatzaren 15ean. Egun horretako ekintzak antolatzeko zera eskatu du: eszenatokia, bankuak, mahaiak, txozna bat eta Udalaren diru-laguntza. Gaia eztabaidatu ondoren, ahobatez erabaki dute A.M.E.A.i baimena ematea, Trinitate egunaren inguruko jaia ospatzeko Aurtizko auzoan, maiatzaren 15ean, baldintza hauekin:

- Egitarau zehaztua aurkeztu behar du Udaletxean.
- Udalak ez dio diru-laguntzarik emango jaia antolatzeko. Halaber, bankuak, mahaiak eta txozna antolatzailerik lortu beharko ditu, Udalak ez bai ditu. Eta eszenatokiari buruz, ez da beharrezkoa, Aurtizko frontoian dagoelako toki aproposa musika taldeak jartzeko.
- Aurtizko Ostatuko maizterren gain, eta zuzenean eskaera bideratu duenaren gain, A.M.E.A., geratuko da erantzunkizun osoa egun horretako antolakuntza, ondorio eta gertakarietan –baldin badira-.
- Antolatzen diren ekintzak (musika barne) goizaldeko 3tarako bukatuak egon beharko dute.
- Antolatzailerik arduratuko da plazaren garbiketaz. Honek garbia egon beharko du hurrengo egunean (igandea) egurdiko 12tan.



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

3. Eskatu den zain-irauliaren balorazioa irakurri du idazkariak, basozainak egindakoa. Eztabaidatu ondoren, ahobatez erabaki dute zain-iraulia saltzea eskatzaileari, hau da, L.M.A.V.ri, metro kubiko 1 egiten duen haritza, 6 eurotan.

4. M.L.E.k eskatu du Latsaga alderdiko zubian edukiontzi horia jartzea. Malerrekako Mankomunitateari edukiontzia eskatu zitzaion duela urte bat baina ez du jarri oraindik. Berriz bidaliko zaio eskaera.

5. Idazkariak irakurri du S.L.P.k aurkeztu duen idazkia, 1go poligonoko 1go partzelan eraiki zen urbanizazioa begiratzea eskatuz, ondoan dagoen bere lursailara urak erortzen direlako, kalteak sortuz. Ahobatez erabaki dute María Urmenetari txostena eskatzea ia urbanizazioa egitasmoa eta lizentziaren arabera egin den ikusteko.

## **12. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.**

1. Ondoren, ezagutuztat eman dituzte agiri hauek: Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamenduko Kontseilariaren 53/2010 Foru Agindua, J.R.B.M.k sustatutako Arau Subsidiarioen aldaketa behin-betiko onetsi duena; Malerrekako Mankomunitateko egoitza berria erosteko eman diren pausoei buruzko txostena; inguruko egoera sozioekonomikoari buruz Berako Udalak, Lesaka eta Etxalarreko alkateek eta Cederna-Garalurrek bidalitako mozioak; larreak erretzeko baimenak; Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari orokorraren 254/2010 ebazpena, lurzoru urbanizaezinean etxebizitza eraikitze baimena luzatu diona A.A.V.ri; Kantauriko Ur-Konfederazioak emandako ebazpena, 2010eko martxoaren 5koa, Hormaiako bordako ur-zikinak botatzeko baimena eman diona I.R.M.i; Herri-Osasuneko Institutuak bidali dituen ur-analisien emaitzak.

2. Landako bidea konpontzeko auzolana antolatzea erabaki dute ahobatez.

3. Errekaldea etxe-ondoko ispilua aldatzea eta Aurtizko sarrerakoa jartzea erabaki dute ahobatez.

## **13. ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egin.

Eta bertzerik ezean, gaueko 9ak eta 45 minutu direnean, alkate Jn.ak bilera akituztat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.